Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urriaren 31, asteazkena — 210 — Miércoles, a 31 de octubre de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzarrak 2018ko urriaren 25ean egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen ezinbesteko gehiengoarekin, 2019 urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako Ordenantza Fiskalen Aldaketari.

Hartutako akordioa eta berariaz izapidetutako espedientea jendaurrean jarri dira, Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluak xedatutakoa betetzeko. Horretarako, iragarkiak argitaratu dira hedabide ofizial honetan, Udaletxeko Ediktuen Taulan eta Gipuzkoan zabalkunderik handienetarikoa duen egunkari batean, arestian aipatu den artikuluaren 2. atalak eskatzen duenaren arabera, eta hori guztia ondorengo arauei jarraiki:

*a) Agerian dagoen lekua:* Udal honetako Idazkaritza.

*b) Aztertzeko eta bere kasuan erreklamazioak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta bulego orduetan.

*c) Erreklamazioak jar ditzaketenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan aipatzen direnak.

*d) Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udalaren Sarrera-Erregistro Orokorra. Erreklamazioak Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

*e) Erreklamazioa aurkezteko organoa:* Udalbatzarraren Osoko Bilkura.

Informazio honen arauzko epea amaitu ondoren, erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez baldin bada, hartutako erabakiak behin betiko bihurtuko dira, bestelako akordiorik hartzeko beharrik gabe.

Elgoibar, 2018ko urriaren 26a.—Ane Beitia Arriola, alkatea. (7180)

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación en sesión celebrada el día 25 de octubre de 2018, acordó aprobar inicialmente y con la mayoría requerida por la legislación vigente, la Modificación de las Ordenanzas Fiscales con efectos del 1 de enero del 2019.

El acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido se somete a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial, en el tablón de edictos de la Casa Consistorial y en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa, según exige el n.º 2 del citado artículo, todo ello conforme a las siguientes reglas:

*a) Lugar donde se halla de manifiesto:* En la Secretaría de este Ayuntamiento.

*b) Plazo para examinarlo y en su caso para formular las reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil a la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.

*c) Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio.

*d) Lugar de presentación:* En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*e) Órgano ante el que se recurre:* Ayuntamiento Pleno.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, devendrán definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de nuevos acuerdos.

Elgoibar, a 26 de octubre de 2018.—La alcaldesa, Ane Beitia Arriola. (7180)

EK\CV GAO-I-2018-07180